

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

- Lokalari dagokionez, lokal bat alokatuko dugu zonalde industrializatu batean eta errepide baten ondoan egon behar da. Hauek dira arrazoi nagusiak:
 - Merkeago da lurraren metro karratua.
 - Errepide ondoan edukitzeak garraioa arintzen du.
 - Makinek zarata egiten dute baina gune industrializatu batean egonda kutsadura akustikoak ez du inor molestaturiko.
- Langileek nolabaiteko esperientzia izan behar dute geroago, lana errazago ikas dezaten. Karkasak egiteko prozedura ondo ezagutzen duten langileek beste langileei erakutsiko diete.
- Kapitalaren barruan hainbat atal kontutan izan behar ditugu:
 - Hiru makina mota behar izango ditugu:
 - Lixatzaile automatikoa: Makina honek prozesuaren lehengo pausoa egiteko balio du. Lehengaia hartu eta banbua lixatzen du nahi dugun forma lortu arte.
 - Zulatzailea: Makina honek prozesuaren bigarren pausua egiteko balio du. Lehenik lixatutako banbu pieza hartu eta erdian diametro txikiko zulo bat egin beharko dugu. Zulo horretan tinta sartzeko.
 - Zizelkatzailea: Karkasen kopuru bat hartu eta zuzaitz txiki bat zizelkatuko dugu. Zizelkatuta dauden karkasak garestiagoak izango dira, baina diru kopuru hori GKE bati (Greenpeace) emango diogu.
- Banbua: gure lehengaiaren kalitatea ezin hobea izan behar da.